

21 ARABA

Azazetako Ega ibaia



Ingurumen-garrantzia

Azazetako Ega ibaiak, Maeztu eta Aauri arteko tarte horretan, ur kalitate handia eta flora eta faunaren aniztasun bikaina eskaintzen ditu. Bestalde, Euskal Herriko beste leku interesgarri batzuen lokailu lana egiten du: Kantabria mendilerroa, Izki mendiak, Entzia mendilerroa, Kodes eta Lokiz

mendilerroak, non artederretaz gain, txilardiak, larreak eta sasitzak nabarmentzen diren. Ereku natural honek guztiak habitat interesgarriak erakusten ditu, hala nola haltzen, lizarren eta sahatsen ibar basoak. Ereku osoak babestoki eta elikatze gune apartak eskaintzen dituzenez,

hainbat arrain espezie aurkitu ahal dira: amuarraina (*Salmo trutta*), barboa (*Barbus haasi*), loina (*Chondrostoma toxostoma*) eta zarboa (*Gobio lozanoi*). Bestalde, badira mehatxatutako ugaztun espezieak ere: izarra (*Lutra lutra*) eta ur-ipurtatsa (*Mustela lutreola*).

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 2,5 km



45 min



Udalerria:

Arraia-Maeztu

Hurbileko herria:

Maeztu



Ibaia:

Azazetako Ega



Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo



661 m



54 m



641 m



54 m



**AZAZETAKO
EGA IBAIA**



Azazetako Ega ibaiia



Non dagoen eta nola heldu


Azazetako Ega ibaiaren ibilbidea Arabako Lurralde Historikoaren hego-ekialdeko muturrean dago, Arabako Mendialdea eskualdeko Maeztu herrian, Arraia-Maeztu udalerrian. (A-132) Gasteiz-Lizarrar errepidea hartuko dugu, ibilbidea herritik bertatik hasteko. Maeztun gaudela, errepideari jarraituko diogu, herria zeharkatzeko, eta azken irteera hartuko dugu, ezkerretara, "Vasco-Navarro" trenbidearen antzinako geltokira heltzeko. Bertan, aparkalekua dugu, eta bertatik bertara dago ibilbidearen hasiera.

Lurrezko pista "Vasco-Navarro" trenbidearen Natura Bidea hartuko dugu, eta 500 bat metro egin eta gero, Azazetako Ega ibaiaren gaineko Peñasaladako zubira helduko gara. Handik ikusiko dugu ibaiaren ibilgua eta ibarrean gailentzen diren zuhaitzak: sahatsak, lizarrak eta haltzak. Trenbidearen natura bidean aurrera jarraituko dugu, ezkerretara utzita mendi magala eta ibaiaren eskuin alde kolonizatzen dituen erkametzen baso trinkoa. Aurreraxeago, burdinolen erretenaren gaineko zubia pasa eta bide berdeari jarraituko diogu, eskuinean utzita udal igerilekuaren eremua. Puntu horretan dago igeritoki bihurtzen zen presa txikia. "Vasco-Navarro" trenbidearen Natura Bidearen 41 kilometrorra helduta, ibaiaren eta A-132 errepidearen gaineko burdinez zubia zeharkaturik ezker ibarrean, lurrezko pistatik jarraituko dugu harik eta kilometro batera presa txiki bat aurkitu arte. Bidearen erdian utzia dugu eskuinetara Bakarne Ama Birjinaren XIII. mendeoko basiliza.

Uraren gelditasunak nabarmentzen du sahatsez, lizarrez eta haltzez jositako ibilguan dagoen presa. Ez da arraroa zenbait amuarra (Salmo trutta) antzematea ibai tarte horretan.

Puntu horretara helduta, ibai gaineko zubira igotzea aholkatzen dugu – antzinako trenbidean- ibaiaren, presa txikiaren eta erretenaren hasieraren panoramika bat izateko. Erreten horrek Atauriko erroetatik Antoñanako indarretxera zeraman ura. Itzulia joaneko bide beretik egitea dugu.

Edozein urtarotan egin daiteke bisitaldia.



Deskargatu
ibilbidea:



KML





GPX

Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:




Wikiloc

Azazetako Ega ibaia



Azazetako Ega ibaia



Azazetako Ega ibaia

